

# PortuEKIN

## GAZTEKIN

## Kultura ekintzailea sustatzea 2020

*“ESPEZIERIK INDARTSUENAK EZ DU BIZIRAUTEN, ONDOEN EGOKITZEN DENAK  
BAIZIK”*

- Charles Darwin -

### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Portugaleteko Gazteria Zerbitzuek PortuEKIN izeneko Hezkuntza Proiektua abian jarri dute. Proiektu hau udalerrian dauden nerabeekiko hezkuntza-ekimenen barruan dago sartuta helburu duelarik gazteen artean ekintzailetzarekiko jarrerak eta ideiak sustatu eta bultzatzea.

PortuEKIN ekimena Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundua da eta Ezkerraldea Gaztedi programaren barruan dago.

Aurtengo edizioan aurrerapauso handi bat eman dugu, zeren eta, kultura ekintzailea gazte guztien artean sustatu nahi baitugu. Horretarako, haiek parte hartzeko bi prozesu abiarazi ditugu: bata, herriko ikastetxeetako, eta, bestea, izen-emate librekoa. Azkenengo honetan, Ezkerraldeko 18 eta 30 urte bitarteko gazte orok parte har dezake.

Proiektua berritzeak izena aldatzea ere ekarri du. Gaztekin hezkuntza-proiektu honek aurrerago darrai baina PortuEkin hezkuntza-proiektu bihurturik. Hona hemen ditugun hobegarriak:

- Gazte gehiagori dago zuzenduta, hau da, 16 urtetik 30era bitarteko guztiei.
- Parte hartzeko bi prozesu: batetik, ikastetxeetako, eta, bestetik, izen-emate librekoa.
- Ikastetxeetako ekintzailetza-tailerrak aurreko edizioetan oso harrera onekoak izan direnez, aurtengo ere egingo dira. Bestalde, proiektuak aurkezteko ekitaldian aldaketak egingo dira. Izan ere,

ekitaldiak ikuspegi hezigarriagoa izango du zuzenduta egongo baita parte hartu nahi duen edozein gazteri. Hezkuntza-arloari soilik ez dago irekita.

- 18 urtetik gorako gazte partzaileen kasuan, PortuEKIN proiektuan aritzeko esperientzia etorkizuneko laneratze baten atarikoia izan liteke.
- Jardunaldian parte-hartzeak badakar berekin sari bat lortzea.

## I. Programaren testuingurua

Lan-mundua ziztu bizian ari da aldatzen. Egia esan, inork ez daki zer etor daitekeen zentzu horretan. Lehen balekoa zena orain ez da egingarri. Gazteek badute aurretik ziurgabetasunez beteriko eszenatoki bat, hari nola heldu ez dakitelarik. Berrikuntzarako gaitasunik ez dutenez, batzuetan zain daude lanerako ateak noiz irekiko. Bestetan, agiriak pilatzen hasten dira sarritan ezertarako balio ez dietelarik. Era berean, enpresek berek ere ez dituzte lehengo beharrak. Beraz, **erronkaz beteriko garai** hauek **aukerak** ere **badakartzate**. Lehen baliagarri zena, orain, ordea, ez. Enpresek bilatzen dutena hauxe da: **balio gehitua** ematen duten langileak, **ezinbesteko eta ordezkaezin** bihurtzen dituzten **trebetasunak** dituztelarik, hain zuzen.

PortuEKIN proiektuaren asmoa da gazteei laguntzea beren ahalmena deskubritzen eta garatzen beren eboluzioko liderrak izan daitezen. Hala, bai munduari bai enpresari ekarri diezaioketen balio gehitu hori bultzatzen lagunduko diete.

PortuEKIN proiektuaren helburuak hauexek dira:

- Ekimen ekintzailea eta talde-lana erronkei begira bultzatzea.
- Gazteen proiektuen alderdi soziala sustatzea, Garapen Jasangarriko Helburuekin ere lerraturik.
- Gazteei mundua irekitzea baita tokiko ekintzak lortzea ere baina ikuspegi global batekin.

Gainera, asmoa ere bada landu beharreko erronkak bat etortzea 2030. urteari begira Euskadiko Garapen Jasangarriko Helburuen agendarekin. 2015eko irailaren 25ean Nazio Batuen Batzar Orokorrak aho batez onetsi zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza plan hau unibertsala, integratzailea eta eraldatzailea da eta helburu du giza-garapena ahalbidetzea jasangarritasunez gizarte-, ekonomia- eta ingurumen- arloetan. Engaiamendua agertu duten herrialdeek GJH-ak lantzea benetako konpromiso dute. PortuEKIN proiektuak ere bat egin nahi du harekin.

Herrialde konpromisoduna izateko gazte konprometituak ere behar ditugu.

## 2. Egitasmoaren helburua

PortuEKIN egitasmoaren helburua da ikasleak ekintzaitzian bultzatzea. Horretarako, negozioarako ideiei ekiten eta hori errealitate bihurtzen, hain zuzen, lagunduko diete. Gazteen artean jarrera ekintzaileak sustatu eta bultzatu egiten dira, egitasmoa bera portaera hori sendotu eta garatzeko tresna delarik.

## 3. Egitasmoaren metodologia

***Garrantzitsuena ez da ZER egiten den, NOLA egiten den baizik.***

PortuEKIN hezkuntza-proiektuaren metodologiak ikasleen ikaskuntza-prozesua aktiboagoa eta esanguratsuagoa izatea bultzatzen dute. Labur esanda, formazio osoagoa ere ahalbidetzen diete:

- **Learning by doing:** Metodologia berritzaile hau Team Academy Finland (Tiimiakatemia) zentrotik dator, Finlandian zentro bikainaren saria jaso duen erakundetik, hain justu ere. Zerbait eginez ikastea datza, betiere, bizikizun desberdinen bitartez eta lehenengo pertsonan esperimentatuz.
- **Deeper Learning:** honen bitartez sei gaitasun nagusi eskuratzen dira: eduki akademiko oinarrizkoa, pentsamendu kritikoa eta arazoaren ebazpena, komunikazio eraginkorra, lan kolaboratzailea, ikasten ikastea eta pentsaera akademikoaren garapena.
- Erronken ebazpenaren ikaskuntza **Challenged Based Learning** eredu didaktikoan oinarritzen da.
- **Golden Circle.** Teoria honek zergatiaren garrantzia azaltzen du. Pertsonak eta helburuak uztartzen ditu, prozesua barneratzeko eta emaitza nabarmenetara iristeko asmoz.
- **Desing Thinking.** Helburua da ideia berritzaileak sortzea. Hala, erabiltzaileen benetako beharrei ematen zaizkie irtenbideak.

## 4. Parte-hartzaileen onurak

Saioetan landu beharreko gaitasunak ondoko hauek dira: talde-lana, enpresa-ekimena, sormena eta komunikazioa.

Talde-lana elkarrekin lan egiteko trebetasuna dugu. Horretarako, ikusmolde komuna ezinbestekoa da baita taldekideen arteko komunikazio ireki eta eraginkorra ere. Izan ere, talde-lana eta komunikazioa PortuEKIN egitasmoaren ardatz nagusi bi dira. Esan gabe doa, gainera, talde-lanak sormena pizteaz gain, ideia hobeak ere eragiten dituela. Halaber, trebetasun, gaitasun, joera, esperientzia eta ikuspuntu askotarikoak batu egiten dira eta behin talentuok integratuta, elkarren osagarri direlarik emaitza hobeak lortzen dituzte. Egia esan, zuk zeuk baldin badakizu zure indarguneak zein diren eta laguntza zeinetan behar duzun (indarguneak eta ahulguneak), zure bizitza pertsonala orekatuagoa izango da eta etorkizunean ere zure lanean hobeto moldatuko zara.

## 5. Hartzailleak

### 5.1 PortuEKIN ikastetxeetan

Portugaleteko ikastetxeetako ikasleak: Batxilergoko eta Oinarrizko, Erdiko edota Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleak. *Ikastetxeren batek DBHko 4. Kurtsoko ikasleekin parte hartu nahi izango balu antolatzaileei jakinarazi beharko litzaieke. Ondoren, proposamena balioetsiko lukete.*

#### 5.1.1 Egitasmoaren dinamika

- Parte hartu nahi duen ikastalde bakoitzari formakuntza-lantegiak eskainiko zaizkio. **Lantegien iraupena**, guztira, **5 ordukoa** izango da. Talde parte-hartzaileek lantegietara joan beharko dute.
- Talde handiaren barruan talde txikietan jardungo dute.
- Ekintzaitza-lantegiak amaitu orduko taldekideek aurkeztutako erronka bati emandako soluzioko egitasmo komuna prestaturik izango dute. Izan ere, prestakuntzaren azken egunean minutu bat izango dute proiektu hori defendatzeko.
- Ikastetxe bakoitzean proiekturik onena aukeratuko da. Beraz, gazte horiek izango dute lehentasuna PortuEKIN jardunaldian beren hezkuntza-zentroaren ordezkaritzan jarduteko zentroen kategorian parte hartzen dutelarik. Halaber, ikastetxeetan 18 urtetik gorako interesdunik balego, haiek ere parte har lezaketekategoria librea izena emanaz.
- Lantegiak **gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez** eskainiko dira ikastegiak hala eskatuta. Lantegiok ikastetxeetan bertan izango dira.
- Printzipioz, **ikastetxeko bi proiektu** egingo dira. Talde bakoitzean gehienez 25 ikasle egongo dira.

#### 5.1.2 Formakuntza-saioen planifikazioa

**Bi orduko** iraupena duten **2 saio** antolatuko dute, eta **beste bat ordu batekoa**. Ondo legoke 2 orduko lantegiak antolatzea, lantegiz lantegi gehienez astebeteko tarteak utzita. Azken saioa ordubetekoa izango litzateke eta ekitaldia egin baino lehen antola liteke. Horiek horrela, egitasmoa birpasatu eta aurkezpena hobetzeko ere baliagarri litzateke.

##### **1. saioa (iraupena: 2 ordu)**

*Zergatia* ulertzen hasiko dira. Gero, prozesuan *nola* lan egingo duten (metodologia) azalduko dute. Azkenik, *zer* (formazio-lantegietan zer egingo den) landuz amaituko da.

Behin PortuEKIN hezkuntza-proiektua zer den ulertuta erronkak planteatuko dira. Taldeek erronka esleitu beharreko pertsonak bisualizatu beharko dituzte Profil

alegiakoak eta *Role playing* dinamiken bitartez. Dinamikaren helburua da azken erabiltzailearekin enpatizatzea produktua edo zerbitzu egokia sortze aldera.

Lehen saioa ideiakintzarekin amaituko da. Dinamika hauexek erabiliko dira: 6 kapel pentsatzeko, *Brainstorming*, kartak, *world kafea* eta loto-lorea, besteak beste.

## **2. saioa (iraupena: 2 ordu)**

Balitzko ideia bat baino gehiago balego, Originaltasunaren eta bideragarritasunaren Matrix-a erabilita egingo genuke hautaketa. Behin ideia aukeraturik negozio-eredua planteatuko da *Business Model Canvas* erabiliz. Halaber, irtenbide berritzaileak proposatze aldera balio-proposamenaz sakon jorratuko dute *Blue Ocean Strategy* teoriaren bitartez.

Bezeroaren edo azken erabiltzailearen prozesua diseinatzeko xedez, *Customer Journey Map* bat garatuko dute. Mapan bezeroak edo erabiltzaileak gure negozioaren ikuspegitik igaro beharko dituen aldi, interakzio., bide eta elementu guztiak islatu beharko dituzte.

## **3. saioa (iraupena: ordu bat )**

Azken saio honetan produktu minimo bideragarri batez (MVP) arituko dira. *Lean Startup* prozesua erabiliko da, hasieratik MVP prototipoa sortzean datzana. Ondoren, bezeroarekin balidatzen dute, gero haiekiko feedbacken bidez hobetuz joateko xedez.

Formakuntza-amaiera emateko *Elevator Pitch* prestatuko dute. Minutu batez produktua saltzen ikasiko dute.

## **5.1.3 Parte hartzeko baldintzak**

● **Lehenengo** bi orduko **ekintzaitza-lantegia** urriaren 19tik 30era bitartean eta **bigarren** bi orduko **ekintzaitza-lantegia** azaroaren 2tik 13ra bitartean izango dira. Berebat, **hirugarren lantegia** (ordubeteko saio bat) 2020ko azaroaren 16tik 27ra bitartean antolatzeko asmoa dago.

● Parte-hartzaileek nahitaez hiru entrenatze-lantegitara joan beharko dute (zuritutako arrazoiak izan ezik), lehenengo biak 2 ordukoak izango dira eta hirugarrena, aldiz, ordubetekoa. Egun-orduak ikastetxearekin adostuko dira, posiblea bada deialdi honek adierazten dituenen barnean. Lantegietan ekintzaitzari loturiko oinarrizko edukiak, erramintak eta osagaiak dinamizatuko dira.

● Ideiak eta egitasmoak jatorrizkoak eta zehaztutako egunetan eginak izango dira.

● Taldearen edo egitasmoaren irakasle arduraduna PortuEkin-en zuzendaritzarekin aritzeko solaskide iraunkorra izango da zeren eta beraiekin etengabeko harremanetan egoteko parada beti izango baitu.

- Aurkezturiko egitasmoaren jabetza intelektuala taldeko ikastetxearena izango da. Portugaleteko Udalak ezin izango du haren erabilerarik egin taldeko koordinatzaileak idatziz baimenik ematen ez badu edo zentroko zu

#### **5.1.4 Zalantzak, informazioa eta inskripzioak**

- Deialdian parte hartu nahi duten ikastetxeek **lehen eranskina** (inskripzio-orria) behar bezala bete behar dute, zuzendaritzak sinatuta. Datuok behar dira: ikastetxearen izena, kurtsoa eta taldea, parte-hartzaileen zerrenda eta irakasle koordinatzailearen izen eta abizenak (telefonoa eta helbide elektronikoa). Halaber, parte-hartzaile bakoitzak bete behar du **hirugarren eranskina** (Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak babesteko agiria).

- Izen-emateak **2020ko irailaren 28tik urriaren 9ra arte** **posta elektronikoz** egin ahalko dira edo **Portugaleteko Gazteentzako Informazio Bulegoan** (Martín Fernández Villarán kalea, z. g. • 94 472 93 13 • juventud@portugalete.org • Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara).

### **5.2 PortuEKIN izen-emate librea**

PortuEKIN hezkuntza-programak xede du ikasgeletatik kanpo ere kultura ekintzailea bultzatzea bai eta gazteak ekintzaile gisara laneratzea ere. Hori dela eta, aukera ematen zaie Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko gazteei, 18-30 urte bitartekoei, hain zuzen, programan parte hartzeko, betiere 2002 eta 1990 artean jaiotakoei.

#### **5.2.1 Prozesuaren dinamika**

- Aldez aurretik prestakuntza jaso dutenek ere izena eman dezakete.
- Taldeak 4 edo 5 pertsonakoak izan beharko dira.
- Parte hartzeko gazte interesdunek, talderik gabe edo talde osatu gabea edukita, ere izena eman ahal izango dute. Kasu horretan, PortuEkin jardunaldiaren aurretik Gynkana batean parte hartuko dute taldea osatzeko asmoz eta jardunaldiari eraginkortasunez aurre egiteko. Gynkana hori azaroaren 28an arratsaldean izango da.

## 5.2.2 Kontsultak, informazioa eta inskripzioak

• Deialdi honetan parte hartu nahi duten taldeek edo gazteek **2. eranskina** (parte hartzeko izen-ematea) egoki bete beharko dute. Aitzitik, PortuEKIN ekintzailtza-programan parte hartu nahi dutenek **3. eranskina** (Datuak Babesteko eta Irudi Eskubideen Agiria) bete beharko dute. Parte hartzen dutenei **NANaren fotokopia** eskatuko diegu datuak egiaztatzeko eta Parte-hartzaileek **10 euroko fidantza** ordaindu beharko dute. Jardunaldia amaitu eta gero, itzuli egingo zaie.

• Izen-emateak **2020ko azaroaren 2tik 14ra bitartean** egin ahalko dira **posta elektronikoz** edo **Portugaletoko Gazte Informazio Bulegoan** (Martín Fernández Villarán z. g. • 94 472 93 13 • juventud@portugalete.org • Astelehenetik ostiralera, 11:00-14:00 eta 17:00- 19:00)

## 6. PortuEKIN jardunaldia

### 6.1 Jardunaldiaren dinamika


• PortuEKIN jardunaldiaren helburua da jarrerari lotutako gaitasunak garatzea parte-hartzaileen sen ekintzailea bultzatzeko xedez.

• Jardunaldian jorratutako proiektuek ardatz dute Garapen Jasangarriko Helburuen erronka baterako konponbideak bilatzea. Konponbideok Portugaleten definitzeko modukoak izan behar direnez, honek inguruko aldaketen eragile aktibo bihurtuko ditu.

• Parte hartu ahal duen talde-kopurua gehienez 20 lagunekoa da.

• PortuEKIN jardunaldian euskaraz zein gaztelaniaz parte har daiteke.

• Behin sarrera eginda eta parte-hartzaileen arteko girotze-lana eginda, jardunaldiari hasiera emango zaio metodologikoki prozesu honi jarraituz:



Deskubritzeko eta sortzeko prozesu honen barruan, gazteek tresna desberdinei helduko diete tutoreek lagunduta. Honatx aldi desberdinak:

## IKERKUNTZA

### 1) ERRONKAREN DEFINIZIOA

√ Erronkarako hurbilpena. Abiapuntuaren hipotesia. Proiektuaren ikuskera eta zergatia (*Why*), hau da, proiektuaren zergatia eta zer lortu nahi den.

### 2) GARAPENA

√ Aukera eta merkatua.  
√ Eragile inplikatuak eta erabiltzaileak/onuradunak.

### 3) EMAITZAK ETA ANALISIAK

√ Ikerkuntzatik datozen *Insights* direlakoak.  
√ *Design Scope*-ren azken formulazioa.

## IDEIAK, PROTOTIPATUA ETA JASANGARRITASUNA

### 1) KONPONBIDEAK

√ *Brainstorming*.  
√ *Design Scope*-rekin *lerrokatzen diren 3 konponbide*

### 2) NEGOZIO EREDUA ETA ITZULERA

√ Negozio-ereduaren deskribapena.

### 3) JARRAIPENAREN ETA INPAKTUAREN ADIERAZLEAK

√ Inpaktu- adierazle bat itzulera-arlo bakoitzean: gizartean, ingurumenean eta ekonomian.

- PortuEKIN jardunaldia inbertsio-jolas batekin amaituko da. Jolasean parte-hartzaileek minutu bat izango dute beren negozio-ideia defendatzeko.
- Portugaleteko Udaleko langile batzuek eta/edo gazteekin diharduten zenbait eragile sozialek proposamen-ekimenak ebaluatu ondoren kategoriaka ideiarik bideragarriena aukeratuko dute.
- Jardunaldia abenduaren 12an (larunbata) izango da.
- Parte-hartzaile guztiek jasoko dute PortuEKIN ekintzailtza-jardunaldian parte hartu dutelako egiaztigiri bat.



## 7. Sariak

Sariei dagokienez, bi kategoria izango ditugu:bata, ikastetxeetarako, eta, bestea, izen-emate librea egin duten taldeetarako.

- **Ikastetxeei** dagokienez, **proiektu irabazlearen saria** 350,00 €-koa da.
- **Izen-emate librearen** kategoriari dagokionez, xedea da gaitasunak garatzea hauexek baliaturik:

- Prozesu intentsibo bat, ezagupen zehatzak eskatzen dituen erronka bati begirakoa, guztien eraldaketa profesionala bultzatzekoa etorkizunerako erronka baterantz.

- Erronka profesional eta pertsonal berriei aurre egiteko aukera bat, batera entrenaturik banaka prestatze aldera.

Aurreko guztiagatik, garapen horri eusteko asmoz, PortuEKIN proiektuak sari gisara hauxe eskaintzen du: ideiarik bideragarrienari *Bridge For Billions* plataforman proiektuaren inkubazioa eta bizkortzea. Proiektu irabazleak jarraipenik izango du The Leap programan. Hiru hileko lineako programa horretan mundu mailako hainbat mentorek prestakuntzaz gain haien jarraipena ere egingo dute. Ekintzaileek sortua eta ekintzaileentzat sortutako lineako inkubazio-programa da The Leap programa. Alta, laguntza ematen du ideiak negozio bideragarri baterako plan batean eraldatzeko.

Informazio gehiago:

### **GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA**

Martín Fernández Villarán z. g.

94 472 93 13

[juventud@portugalete.org](mailto:juventud@portugalete.org)

astelehenetik ostiralera: 11:00 14:00 / 17:00 –  
19:00

### **GAZTEGELA**

Maestro Zubeldia z. g.

94 472 92 84

[gaztegelela@portugalete.org](mailto:gaztegelela@portugalete.org)

astelehenetik ostiralera: 16:00 – 21:00  
larunbatetan: 10:00 – 14:00 / 16:00 – 21:00

[www.gazteportu.com](http://www.gazteportu.com)